

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urriaren 16an hartutako erabakiaren laburpena: euskaltegiei 2020-2021 ikasturtean hirian ematen dituzten ikastaroengatik diru-laguntzak emateko deialdia

BDNS (Identif.): 529771

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke.

Lehen. Onuradunak

Ikastegi homologatu gisa HABEren (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) erregistroan izena emanda dauden hiriko euskaltegiak, diruz laguntzen den aldian (2020-2021) Vitoria-Gasteizko udalerrian jardun badute.

Bigarrena. Helburua

Euskaltegiekin lankidetzan, Vitoria-Gasteizko hiritarrek euskera ikastea sustatu nahi du deialdiak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urriaren 16an egindako ohiko bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 99.000 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

20 lanegun, laburpena ALHAOn argitaratzen denetik.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 16an

Alkatetzaren Koordinatzaile Orokorra
JONATAN MORENO CARRANZA